




## MUSIKA

# Iragan posibleak, Haizetxetik



UNAI PELAYO



**HAIZETXE**  
**ALBERTO LIZARRALDE**  
 HEGOA DISKAK, 2022

**XALBA RAMIREZ**

**W**alter Benjaminen *Pasagem Werk* ezagutzen? Historiako zabortegian bilatuta, garaia irakurtzeko saiakerarik anbiziotsuena izan zen. Zer geratu zaigu gure historiako zabortegian? Argitaratu gabeko zenbat altxor, zenbat buru isildu, zenbat entzun gabeko ahots?

Zer izan da Euskal Herria? Dena trikiti, dena dantza? Dena tiro, dena lehergailu? Dena rock eta punk? Dena Athletic, dena Real? Historia linealak kontatzen dituzte, etorkizun linealak nahi dituztenak. Baina dirudien arren, historia ez da fosil bat. Etengabeko moldaketa eta berrirakurketan dago garaia.

Landa eremuko Zaldibia borrokalari eta folklorikoaren barrunbean eraiki

zelako musika elektroniko esperimentaleko pieza abangoardista hau. Inoiz ere argitaratu gabea, Alberto Lizarralderen *Haizetxe* dakar Hegoa Diskak-ek, mundu osoarekin konektatuz etxeko goxotasuna. Izan ere iragana ezin da modu linealean irakurri.

Adibidez, 1960ko hamarkadan –Ez dok amairu hasi aurretik– Donostiako Parte Zaharreko lokaletan, gazteek gitarra elektrikoak jotzen zituzten, Beatlesak edo auskalo modako zer imitatzen. Gitarra klasikoa abangoardia izan da gerora, Laboaren eta Iriondoren eskutan. Baina ehun urte lehenago, 1889an Rosario Artola bertsolari donostiarrak gitarrarekin abesten zituen koplak: *Nik guitarcho bat baidet / Maite eta lagun.*

Berrikuntza etengabeko kate bat delako, eta ez eskailera bat.

Historia ez da uste duzuna. Ezta ere uste dudana. Une oro gertatzen direlako gure bizkar, gure itzal, espero ez ditugun gertaerak. Etorkizuna orain gertatzen da, eta etorkizuna iraganean gertatzen da.

Lañarriren egunsenti ederrrenak ikusten dira Haizetxetik. Eta naturaren aire sakonetik, mundu osoak ulertuko duen hizkuntzan hitz egin zuen Alberto Lizarraldek. Orduan gordeta geratu zen hazia, etorkizunean sustrai eta zuhaitz eta fruitu eta lore izateko. Iraganeko soinu hori aurkezten zaigu gaur, etorkizuna imajinatzeko aukera gisa. ●